

## Balioa →

Gure kasuan **zerbitzua** eskaintzen duen proiektu bat diseinatu dugu eta balio **kualitatiboa** du.

Bereziki zerbitzu **berritzailea** eta **erabilgarria** dela uste dugu. Gainera **behar erreal** batzuei erantzuten diegu.

Proiektu honen helburua familien ongi izatea hobetzea eta egonaldia eramangarriago izatea da. Hau da, familiaren beharrak gaixo baten modura hartzea. Modu honetan bizitzen ari diren ezegonkortasun emozionala murriztea lortu genezake. Ez da erraza gaixoa izatea, baina ez askoz ere errazagoa familiarren zaintza papera betetzea.

Beste ospitaleetatik desberdintzen gaituena, zera da; normalean, ospitale baten lehen helburua, gaixoari zerbitzua ematea da, normala den bezala, baina gure zerbitzua normaltasunetik urruntzen da. Horrelako zerbitzuak eskaintzen dituzten ospitalerik ez dugunez aurkitu, gure zerbitzua aurrera eramateko arrazoietako bat hau izan da.

Gure apartamentuak balio erantsi bezala gune berde bat eta erlaxatzeko, yoga egiteko, ...gela edukiko ditu.

